

Donostian, 1999ko apirilaren 23an

Bost eta erdietan eman zaio hasiera arratsaldeko bilkura irekiari.

Mahaiburuan eseri dira Jean Haritschelhar euskaltzainburua, P. Goenaga idazkaria, J. A. Arana diruzaina, Koruko Aizarna Gipuzkoako Kultura eta Euskara diputatua eta Jorge Letamendia Hirigintza eta Lanetako diputatua.

Aipatuez gainera, honako euskaltzain hauek bildu dira: P. Altuna, M. Azkarate, P. Charriton, J. L. Davant, X. Diharce, A. Iñigo, X. Kintana, H. Knörr, E. Larre, J. M. Lekuona, P. Ondarra, B. Oihartzabal, Tx. Peillen, J. San Martin, I. Sarasola, J. M. Sarustegi eta A. Urrutia.

Urgazleatarik, berriz, honako jaun-andre hauek: J. M. Aranalde, A. Aranburu, A. Arejita, Pakita Arregi, M. Atxaga, Ricardo Badiola, Serafin Basauri, J. L. Goikoetxea, M. Itzaina, M. P. Lasarte, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, J. A. Mujika, P. Urizarren, J. J. Zearreta eta J. R. Zubimendi.

Arrate Ibargutxi, Imanol Laspiur zenaren alarguna ere entzuleen artean izan da eta baita beste hainbat herritar ere. Gela, azkenean, txiki gertatu da.

Euskaltzainburuaren hitzak

Lehenbizi, euskaltzainburuak hartu du hitza. Donostiako ordezkari-tza berritua inauratzea dela eta, bilduak agurtu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunei eskerrak eman dizkie Euskaltzaindiaren ordezkari-tza honetan egindako lanengatik. Euskaltzaindiak eskuartean dituen eginkizunak aipatu ditu. Hemendik aurrera batzordeentzat leku aproposagoa izango du Euskaltzaindiak Donostian.

Goizeko bilkuraren berri

Ondoren, idazkariak hileroko batzarrean erabilitako gaiak aipatu ditu, labur-labur: hizkuntza arauak, erregelen eta arautegiaren gaurkotzea, egiteko den kongresua, etab.

Imanol Laspiur euskaltzain urgazlearen hilberri txostena

Jarraian, Serafin Basauri jaunak adiskide eta lankide izan zuen Imanol Laspiur zenaren hilberri txostena irakurri du. Hitz batez definitu ahal balitz haren lana, hitz hori "bidegile" izango omen litzateke. Euskararen irakaskuntzari lotua, euskara batuaren defendatzaile sutsu, Eibarko euskarari zion maitasun ikaragarria ukatu gabe. Euskararekiko eta herriarekiko maitasunak nahigabeak ere ekarri zizkion, kartzela eta desterrua barne... Hizlaria poliki-poliki joan da, hitz zehatzez eta hunkigarritz, Imanol Laspiurren bizitzaren eta borroken nondik norakoak azaltzen. Haren idazlanak aipatu ditu, azkenik, *Jakin-en*, *Euskeraren* eta abarretan argitaratu emanak. Eskuartean zituenak ere aipatu ditu.

Ondoren, euskaltzainburuak hartu du berriro hitza hizlariari eskerrak emanaz eta Laspiur zena gogoratuz: “Jakin dezala familiak Euskaltzaindiak beti gogoan izango duela Imanol”.

Koruko Aizarnaren hitzak

Azkenik, Aizarna andreak hartu du hitza. Sudupe diputatu nagusiaren ezin etorria adierazi du. Jendea agurtu du Diputazioaren izenean eta eskerrak eman dizkio Euskaltzaindiari egiten ari den lanagatik. Eskerrak oraingoei, baina baita aurretik lanean jardun dutenei ere.

Ordezkaritzan egindako berritze lanak beharrezkotzat jo ditu eta zor zitzaiola horrenbeste Euskaltzaindiari. Dena dela, Letamendia jaunak zuzentzen duen departamentuaren lana izan dela gogorarazi du.

Eta horrenbestez, arratsaldeko seiak eta erdietan amaitutzat eman da bilera.

* * *